

anaitasuna

GARAGARRILLA (7) 1965—XI URETA—Núm. 126 — Dep. Legal S. S. 1092-1959 — Zuzendaritza: Bilbon. — Arantzazuko Irarkolan.

JAKIN ALDIZKARIA

Zer dan JAKIN? Ba, orixe: "Euskal gaztedia kultura bideetan". Kultura euskeraz emoten deuskun aldizkaria. Ez dago esan bearrik euskerak, gaurko egunetan, geien bear dabena kultura dala, jakintza.

Kultura barik euskera il egingo jaku. Eta utsune au betetera jatorku, ba, JAKIN. Euskerari jakintza igortzi bat emon guraz dabil JAKIN.

Politto baiño polittoago urteten daberen errebistea da JAKIN. Politto, bai azalez, ta bai mamiz, bietara.

Etorkizunari begira bier egiten dau JAKIN-ek.

Euskaldunak eusten badeutsa, JAKIN biziko da, ez ikaratu. Euskaldunen arnasaz bizi dalako JAKIN. Goiz edo berandu, zuen laguntasuna izan ezkerro JAKIN-ek beteko dau bere eginbearra. Ezetz? Len be, gero, baten, JAKIN il zan, galaso eben bere ateratea. Baiña lortu zan —Madrilletik— argitaratuteko baimena; ta orain iñoiz baiño ederrago ta fiñago jatorku.

Ez daiteala JAKIN alerik zeure liburutegian falta!

Zuk, irakurle, zer egin daikezun JAKIN-en onerako? Esate baterako gauzatxo bi egin daikezuz: JAKIN au erosi, zabaldu, eta bertan idatzi, bazin badozu. Erosi egizu, ba, ainbet ariñen. Ori egin ostean, zabaldu eiezu zeure laguneri, ta edozein euskaldun eskolatuari. Euskerarentzat mesede andia izango da au. Eta gaiñera zergaitik eskribitu ez bertan, indarrez bazara; edo beintzat idazteko gauza dan iñor ezagututen badozu zergaitik beste orrenbeste egitera gonbidatu ez?

*Olantxik eta polittago agertzen da JAKIN beti.
Eskatu zuzenbide onetara lenbaileen:*

*Dirección de JAKIN
Aránzazu
Oñate — Guipúzcoa.*



ZUEK ETAGU

GEURE

ARPIDEDUN BARRIERI

Eskutitz auxe bialdu dausku Aita Andoni Zubizarreta-k eta, beste askoren iritxia ikusita, argitaratuteko, asmoa artu neban. Bere baimenik eztaukagu, baiño seguru gagoz emongo leuskigula eskatuko ba geunskio. Bidez, bada, **ESKERRIKASKO** Aita Zubizarreta zeure oar zuzenakaitik, ta barrirero be bialdu zeinkezu ezer barririk billatzen ba dozu. Besterik ez.

DERIO-ko abade-ikastetxe txikitik eldu jaku kartatxo bat ogetairu arpededun barriekin. ZORIONAK DANORIIII!

Pello Garatea-ren ardureak egin dauzku arpededun pillotxu auxe. Eskerrik asko, Pello, ta ia beste inor luzatuten ba jaku beste pillotxuen bat bilduten... Esker beroz artuko genduke.

AGUR.

Gernikatik Anaitasunaren zuzendariari: Bakea ta Ona



Aspalditik nenbillen zueri lau berba egiteko gogoagaz. Baña baten bateagaitik eta urrengoan besteagaitik, emen egon naz ezer egin barik.

Ia ba gaur... Bapez baño berandu oba dala diño batzuek eta...

Nire lau letrok egiteko gogoa ta asmoa sortu dabenak, zeuen eskariak izan dira, zeuen iritxi eskariak, esan nai dot. Eta errebista baten iritxia beren irakurlieri eskatzeari ezin obeto deritxot. Eurak jaten, irentsiten eta ausnartzen dabe bai, eta zelako gustokoa ta zelako kopaua dan eurak baño obeto inok be ez daki.

Irakurri dodaz batzuen iritxiak, eta gaur neurea emotera natortzue.

Len be esan neuntsuen, errebista orren "gerokoa" bere barruan dagoala. Dane-na be bai. Gauza batek balio ez badau, alperrikoa da bera artzeko-ta erreguka ibiltea, mesede eske, karidade eske. Errebista asko "Jaungoikoaren amoriarren" artzen dirala danok dakigu. Baña "amore" au arin amaitzen da, batez be, dirutxoia soltau bear danean; asko izan ezarren; eta bera baño errebista obeagoak eta merkeagoak inguruan ikusten diranean. "Amore" orrek Jaungoikoare-

nak barik errebistearena berarena izan bear dau, or Jaungoikoak zer ikusi gitxi dauko ta.

Gaur esan neinketzue, pozik ganera, pauso aundi bat emon dozuela, eta, nire ustez, eunetik larogei irabazi dauala Anaitasunak. Zergaitik ori dana? Emon deutzazuen izakera barri orregaitik eta bere barruko mamñagaitik, eta, ganera, mamin ori atsegingarri azaltzeko egin dozuen alegiñagaitik.

Lengo Anaitasuna kaskarra ta ziztrina zan, egitan be. Gaurkoak beintzat itxurazko arpegia eta jazkeria daukoz. Gaurko egunez orrek asko esan nai dau. Orregaz ganera, bere barrukoa taiukua ta baliokoa bada, eta gustoz argitaratua, ori da errebistearen "amorea" sortzen dabena.

Puntu onetan asko baño askoago lortu dozue, eta errebista ori gaur gustora artzen da toki guztietan. Orretara jarraitzen badau, eta jarraitu egin bear nai ta nai ez (barriztu edo il) ez da izango karidade billa joan bearrik, berak egingo dau bere abitxoia bestien artean, eta bere "gerokoa" seguru egongo da. Gerokoa beti izaten da gaurkoaren fruitua.

Txalo bat ba zueri, eta animorik aundienak.

Alan da guztiz be, ez eizue mesedez pentsau, zuek animetagaitik esan deutzuedazela gauzo onek. Orregaitik be bai. Baña, batez be, beste gauza bategaitik, eta au pozgarriagoa da: egia dalako.

Eskatuko neuskizuen beste gauza bat auxe izango litzake. Uste dot len be bein edo bein esan deutzuedala: obeto, atsegingarriago ta mamitsuago urtengo leukela, artikulu laburragoak eta ugarriagoak egingo bazendukiez. Esate baterako, Vida Nueva errebista orren lenengo orrialdearen modura. Au asko be ga-

txagoa da, eta biarra asko geitzen iatzue, baña asko irebaziko leuke orriak. Onegaz ez deutsuet esan gura, artikulo luzerik ez egiteko, artikulo luzeak nai ta nai ez agertu bear dabeta, batez be gai batzueguz diarduenak, errebistaren joskeria adaba tzikiagoekaz egiteko baño; bizitasuna emoten deutse.

Aita Villasantek lengoan emondako iritxia be, neure ustez, kontuan artzekoa da. Errebistek erri usaintxoia be eroan daiala. Ortik eta emendik, batean erri batetik eta bestean bestetik batutako kaskarrillotxoak be asko arintzen eta bizkortzen dabe olako orri bat. Errikoak diran lez bera leidunten dabenak, zeozer eurena be topa daiela, eurak be bere orri artean sartu, saltzan, euren gauzari ikutu.

Salneurria ogetabost pesetara igo dozue. Ondo dago. Uste dot, gaur urtetan daben moduan jarraitzen badau, balio dauzala. Papela ta inpretea gaur zer kostaten diran ondo dakigu. Kontuan artu bear da, ganera, ez dirala bardiñak erderazko errebista bat eta eta euskerazko beste bat; euskerazkoak asko be arpide gitxiago eukiten dau beti. Eta ondo egongo litzake arpededun asko be egi onegaz konturatuko balira: euskerazkoak karuagoak badira, orrexegaitik dala, euren "tiradea" txikiagoa izaten dalako. Baña geure euskaria maite badogu, gure maite-tasan ori zeozelanik agertu bear dogu. Eta modurik onena ez da izaten, karua dala-ta, artu barik ixtea.

Besterik ezer bez. Orixe esateko gogoa euki dot, olan eskatu deuskuzue zuek bai, eta ara or nire iritxia.

Ez dauka atxekirik zuentzako, txalorik beroena. Beti aurrera, orretara bazoaze errebistearen gerokoa seguru dago, eta beragaz batera, euskerearen mesede aundia.

Agur eta urrengorarte.

A. Zubizarreta.



SEMI AK:

LAN BILLA DABI- ZANEN AKATSA

Jauntxo geiegik itaun auxe egiten deus-
tee lan eske doiazenei:

—Eta zenbat seme dozuz?

Eta asko badauz, kitto, kanpora, ezta-
ko gizon arentzat lanik. Orregaitik, se-
me asko dauazala esatea atea zabaltze-
ko bearrean ixteko errekomentaziorik
onena dozu.

Eta negargarriena, eta enparaugarrie-
Jaunak daki.

Eta negargarriena, eta enparaugarrie-
na, eta lotsagarriena auxe dogu: Aberats
orreik bere burua kristiñautzat joten da-
be, eta bearbada limosnatxuak be egiten
dabez: Baiña limosnea baiño ariñago zu-
zenbidezkoa emotea da: Eskatuten daben
guztiei biarra emotea da lenengoa, gure
soziedatea eta gure burua kristiñautzat
euki gura badogu: Estu-estu bizi diranen
bizitza arindutea. Eta binbitartean ez
gara kristiñau, ezta be gizon: animalia
gara.

Pello'k.

Uri andi danen inguruetan, an eta
amen, sakabanatuta, beti ikusiko dozuz
txabolak; eta ez zaldientzako txabolak:
gizonak berak be, beste etxerik ezean
ara abiatuten dira. Txabola bakotxak fa-
meli bat edo bi eukiko dauz. Denak bear-
tsuak, gosea beste diru bear dabenak.

Txabola orreitako batean aita ikusten
dogu. Zortzi seme-alaba dauz, danak txi-
kiak oraindik, lanerako gauza ez diranak.
Itaun bat zuzenduten deusagu:

—Zergatik etzara fabriketara lanera
joaten?

Eta erantzuna, latza, kristiñau garanoi
min emon bear leuskiguna:

—Seme askotxo daukodaz, eta ez deus-
tee fabriketan artuten.

Auxe izan zan aita aren erantzuna.

Gogorra benetan eta lotsagarria olako
kopeta illunak ikustea ainbeste jauntxo-
tan aita batek lana eskatuterakoan seme
askotxo daukozala agertzean. Aintza eta
ohorea merezi daben aita goragarri
orreik, orreik dira lotsakizun andienak
pasatu bear dabezanak. Naiago dabe
seme gitxien aita, eta mutilzarra bada
oba; eta oraindik obago betiko mutilzar
geratuko balitz; Orreik dira-ta gitxien
kobratuten dabenak, punturik eta sub-
sidiorik eztaukiezalako.

Barrero be Aranzazu kantari! Ardi zuri, atx, zelai ta mendi tartean
kanpai zartxo baten otsak diardu ekiñalean. Praileek ots guzti onak kantu
edarretan ezarri dituez, eta or dozuz salneurri Arantzazu-ko Disco politikak.
Praileek eurak kantaten dabez. Arantzazu'ko dendan arkitu zeinkezuz.

ARANTZAZU'KO DISKOAK, BAI OSO POLITAK!!!



Erligio - liburu on bat, euskeraz

Zeleta Jaunak bialdu eban idazki auxe "ANAITASUNA" gipuzkerakoan —beraz "ANAITASUNA" aldizkari bi daukaguz: giputzena eta bizkaitarra— argitaratuteko asmoakin. "ANAITASUNA" gipuzkerakoan aal ez ba eben, bizkaierazkoan argitaratutia zan bere naia. Zeleta'ren nai ori betetera gogo onez noa ni, gizon ospetsua be baida-ta bera (euskal akademikoa, ziur). Bidez-bide giputxen idazkera polita gure aldizkaritxoan sarerazteko aukera ezin obia daukogu oraintxe. Eskerrikasko Zeleta, ta beste ezer bialtzeko gogorik ba dozu, bialdu zeinkezu ienbailen, oso pozik artuko dogu- eta.

"23-garren Yon Aita Santua ta II-garren Batikano Batzarra". 115 orrialde. Egillea: Yurre'tar Julen Aba, kaputxinoa. Itxaropena Argitaldaria. — Zarautz.

"Ona emen Yurre-tar Julian Abak egin duan liburua, Erromako Batzar Orokarrari-buruz", —dio aspaldi ontan gure artean aurkitzen dan Pin-

tik, ez ordea ainbeste, ez bat bera ere. Artikulu mamitzu batzuk bai, or-emengo aldizkaritan, euskeraz azaldu dira, batez ere "Aránzazu" aldizka-

degu erri aurreratuen artean eta erri aurreratuak oi dituzten on guztietaz orniturik ikustea".

Ondore edo konzekuentzi

ori bera atera degu, guk ere, aurrenetik azkeneraño, arretaz irakurri degunean, azterkatzen ari geran liburua. Eta "danari, dana", emanaz, gurekiko, egiten degu, atsegin aundiz, Larrañaga Abak liburu ontan dion au ere: "Orretxegatik, orain lurbiran ain ospetsu izan dan Erromako Batzarraz, euskeraz ere, liburua egin dala jakiniuk, arras poztu naiz".

Ezkierki edo seguru, esan dezakegu: gu bezela poztuko dirala liburua irakurriko duten euskaldun apaizak eta gafeantzeko sinismendun eliztar guztiak ere. Zergatik? Larrañaga Abak bere esanaien artean garrakzi adierazten digun onetxegatik: "LIBURU AU GUZTIZ DA BIKANA; ORAINGO ELIZBATZARRARI-BURUZ EGIN DIRANETAN ONENETARIKOA".

Alaxe baita, izan ere: bai gaiaren aldetik, eta ala, egileak dabilkin giputz-izkelgiaren aldetik.

Geiegizko neologismo ta erderismo-kutsutik zentzuki alderidurik, gipuzkera txukunean tajutu digu, Yurre Abak, bera bizkaitarra izanik, ain aipagarri zaigun eta izango zaigun euskal-liburu-mardul eta irakurgarria.

Amar zatitan, ongi berexturik dakar, gaiak, liburuak:



gliang'go Gotzai dan I. Larrañaga Lasa agurgarriak, erlijiozko euskal-liburu eder oni "SARBIDEZ" ain euskera gozoan ezarri dion itzaurrearen lenengo zerrendan. Eta, onela dio urrengoan:

"Kristau sinismena duten errietan, batez ere aurreratuenetan, papel guztiak erruz eman dute aren berri. Eta kristau sinismenik ez duten errietan ere, au da: mundu guztian idatzi ta zabaldu izan da Batzar orren berri ugari".

Egi aundia, gure Gotzai euskaldunak lerro arduratsu oietan diguna. Kanpoan, asko itz egin eta asko idatzi-da, eta gaiari-buruz, liburu-ederrik argitaldu ere bai, ainbat izkuntzetan. Gurearen alde-

rian, bikainki gure Aita Villasanten azkarrak idatziak. Deus baliokorik, ez, gafeantzean...

Liburu on baten bearrean zegoan, beraz, gure izkuntza, eta Yurre Aba etorri zaigu, utsune aundi ori ederki betetzera, euskal-irakurleak xetetasun guztielkin izan dezaten XXIII'garren Juan Aita Santu on utsak lenengo ta bigarrengo BATIKANO BATZARRAK eratzeko izan zitun asmo garrantzitsuen berri.

Berandutxo argitara baizai-gu ere, guztiz irakurgarri zaigu Yurre Aba'ren irakurgai jakingarri au.

"Euskalerrria, gurea danez, ta biotzez maite degunez, —dio, Larrañaga Abak aipaturiko itzaurrean— atsegin

- I.—"II-GARREN BATIKANO" BATZAR OROKORRAREN JATORRIA.
- II.—BATZARRAREN IRIKITZEA.
- III.—BATZARRA IBILTZEN ASIA.
- IV.—AITA SANTUA TA BATZARRA.
- V.—LITURJIA.
- VI.—YANKOTIAR AGERMENA.
- VII.—IDIEN ZABAL-BIDEAK GIZARTEAN.
- VIII.—BATASUNA.
- IX.—ELIZA.
- X.—LENENGO BATZARRALDIAREN AZKEN-EGUNA.

Azkenean, euskera-erdera iztegitxoa dakar, liburuak, itz bat ere ulertu gabe utzi ez dezan irakurleak. Gure zorion eta gorespenik blozkoiak liburu onuratsuen egille maitiari, eta orobat, "SARBIDEZ" ain itzaurre sarkorra ezarri dion Gotzai euskaldun jatorrari.

PELOTA JOKUE

Aurtengo pelota jokua... gaitz...

Eta gero, upielako astrapaladea...

Zer ikusi izan dogu?


DEPORTIBIDADEA?... ALKARTASUNA?...

Aurpegi illunak eta berba garratzak...

Danok be, bai bizkaiko eta gipuzkoakoak...

Euskal pelota joku auxe, barriz, geuregeureko dogu...

Badaukogu zerikasias datoren urterako! Hilario Azcárate-k...



Alkar artu-emon polit eta bizi-bizia ikusi izan dogu ALMIKE eta J. M. TORREALDAY-en artean...

ERANTZUNA ONETSIAZ

Ezer orduko, gure aldizkari onetan idatzi dozulako ondo etorria, ta gorantziak emote...

Ta geure arteko gaiari lotuaz, asikeratik, zeure iritzia oso-osorik, ta dan-dana onesten dotala zertan esanik be ez...

Eskolaren indarra zenbatekoa dan adierazteko oraindik ointsu neuri gertatutako zer bat ekarriko dot orain.

Euskalerriko menditontorretatik nagusiena Aitzgorri dogu. Andixek bera lagun batzuk gentozala ume batzuk erderaz oles egin euskuen...

gaztelarrez tutik be jakingo. Neska-mutikoak eskolatik etozen.

Baiño, gure euskeraren estura onetan, gura doguna ez daukagun ezkerero, al dogunari eutsi bear deusagu. Iñoiz zeuk gura sendukelako eskolarik jasoten bada, pozik artungo dotaz nik barriaren zeaztasun danak, baiño gaurkoz, ezin da, edo, ez da egi ten beintzat.

Ba-dakit euskerea erakusten dan eskola batzuen barri. Baiño euskerea erakustetik euskeraz erakustera eldu ez gaitezen bitartean lengoan, edo ia lengoan, jarraitu bear ko da.

Gaurko egoerari dagoan letxe begiratuten ba deusagu, ba, idatzi neban guztia aintzakotzat artu bear dala pentsaten dot gaur be. Neuk, idazkai arreri ezer barririk erantsitekotan, lantegi onetan jarri nai diraneri-ta euskerea eskatutea —Kamianazpik be auxe idatzi eban baten— ta olakoxeak generatuko neuskioz.

Besterik ezin deikegun bitartean, al dogunari eutsi, ta ezin dana nonoiz egin al daitean alegiñak egin. Ez dau beste biderik.

ALMIKE.

MUNGIA-n

Urte askotan uste izan da traktor eta beste tresna barriak euskalerriko labrantzan zer-egin askorik ez eukeela. Apur-apurka uste au gitxiagorantz doa seguru, tresna onekaz biar egindako lurrrak askotaz geiago ta errezago emoten dabela ikusten asi bai gara.

Orain arte be egin dira ekiñaldi ugari: erri askotan ikusi zeinkezuz, ziur: Markiña-n, Gernike-n, Mungia-n, Arratia-n.

Aurten San Isidro zalata, batez be beste ekiñaldi bi ikusi doguz Bizkaian: Mungia-koa ta Arratiakoa. Biak garrantzikoak, ibar onen aaltasun eta merka-duetako beartasunak ondo neurtu ezke-tiño.

Izan be, Bizkai aldean prolema berezi ta gogor agertuko jaku denpora gitxi barru, baserrietako lanak eta frutuak gero ta bearrezkoagoak izango bai dira.

geldituko. Mungi aldeko baserriak kezkan asi dira, baserria beste era batera jartzeko-edo. Baserriarrak ondo artu dabez gogo onek eta gaurko baserriaren etorkizuna batasunetik etorriko daiteke-la konturatu be bai.

Bizkai aldean jarrita dagoz lenengo pauso sendo ta zintzoak. Laster ekiñaldi oneik frutu ugariak agertuko deuskuez: naikoa da urte bian 14 traktor-tresneta-tik 200 igoteko asmoa dagola jakitea. Asmo au amets utsa ez da izango. Ez seguru! gaur bertan asi gara ikusten lenengo ondokoak-eta. Batzuk, amar-ama-bost baserri alkartuta, asi dira tresna oneik erosten eta beste asko zezozer egiteko kezkan dabiltz. Txalogarria, beste askoren antzera, Fika-ko baserriarren lenengo pausoak fiñ ta kementsuak. Eurrari ta bide bardiñetatik jotzen daben guz-tiari txalorik beroenak!

Isidro Deunaren egunean Yurren antolatutakoa, ikusgarria izan zan benetan; baiña ez gaitezala agerpenetan gelditu. Azkeneko erabakia baserrietan bertan billatu bear da, agerpenetan baiño.

NAVARNIZ-en

Bizkai-ko "Señorio" famoduak euki ta jabon ditu ugari aparteko oiturak, apur-apurka errietan bananduta. Zoritxarrez urteakaz geienak aztuten joan dira. Gaur bana-banaka baiño ez doguz billatuko, mendi arteko errietan edo.

Onetariko oitura oroigarri bat Navarniz-ko erri txo tontorran izan dogu. Gogoratuten dabe oraindik argi ta garbi Navarniz-tarrak oitura zar axe: alkate ta konzejal jaun ta maiorazgoak domeka ta jaietan Meza Naguzira eroaten eben mantu zabal ta luzea. Berrogetamar urte



Orain arte Bilbo-ko baratza Abando ta Deusto aldetik egoan. Gaur berriz, Mungi aldetik jo bearrean dago, "el nuevo Bilbao" osatzen daben errietan fabrika barri eta bizi lekuak millaka geituten doazenetik. Zelan asetu geitutasun onek derrigorrez dakarzan beartsunak? Gizona ezta iñoiz biziko burdiñagaz, edo ikatzagaz edo txartel berdeak emoten daben kili-kili-tasunagaz bakarrik. Ortan gagoz danok. Baiña askotan ortu ta baratzen beartasuna ittota geldituten da, jatekoan pranko dagonean. Pako etorri bear izaten da egia argi eragiteko. Eta etorri da seguru, gaurko merkaduak geiago eskatuten eta eskatuko dauala pentsaten badogu.

Beartasun onen erabakia non-edo-non billatu izan bear da. Zati batena beintzat —danena ezpada— Mungi ta alboko errietan billatu da. Erabaki au primeran etorri da ziur, batez be erederaz "éxodo rural" deritxon ori gelditu ta gitxituteko.

Ixilla, baiña eginkorra ta trinkoa benetan Mungi-ko "Servicio de Extensión Agraria" baserriaren alde egiten dauan biarra. Ekiñaldiak ez dira frutu barik

ARRATIA-n

Baserritari labrantzarako aurrerape-nak aurrean ikusitakoan, azeriari matza ikusitakoan gertatukoa pasatuten jako. Bai, or daukaguz baserriko prolemak erabakiko deutzuzan tresnak. Baiña —egia esan— benetako prolema ontxe asten da, tresna oneen balioa itaundutakoan. Danen korapilloa auxe: ta arrazoizkoa benetan, baserritar geienak labrantzarako iru ektaria baiño eztaulazela jakin ezketiño. Iru ektaria orretatik zelan atara tresna orreik balio daben mordoxka dirua? Erabakia —tresnaren salneurriak olan dagozan bitartean— iru edo lau baserriaren batasunean egongo da, ziur.

Arratia-ko "Servicio de Extensión Agraria"-k Maiatzen 16-an labrantzarako tresnaren agerpen bat antolatu eben Yurre-n. Erritxo onetan bildu ziran alboetako baserriarrak. Egiz, agerpen au, "agraria" onek egiten dauanaren izpillu argi bat izan zan. Baiña baserriarrak, azeria matsaren aurrean lez, gelditu ezpaziran pentsatu neban orduan, aurrerapen eder aiek ikusiaz. Ori bai txarrena!

izango dira Akorda-n (Ibarrangelua) oitura zar beraxe galdu zala. Geroago Mendeja-n (Lekeitio) beste orrenbeste gertatu zan; eta orain —badira iru bat urte— Navarniz izan da oitura ori azken aztu dauana.

Mantu oneik —jakiña!— aurrerantzean sorbaldean euki bearrean, etxebakoitxe-ko kaxetan edo gordeta egongo dira. Ori bai, gitxienetik berreun urte ditue lez, balioko gauzen ardurea artuko dabe.

Baten batek itaundu leikit oitura au ain estimagarria izateko noizkoa izango ete da gitxi-gora-bera. Erantzuna ez da erreza. Dakiguna 1936-grn. urtean Donosti-n Bernardo Etors Lasak argitaratuko "Indumentaria Baska-liburutik dakigu. Ara zer diñoskun: "En el año 919, Don Sancho Abarka, rey de Navarra, y el Obispo Don Basilio dieron al Monasterio de Leire una capa y un guanapié". Beste batean: "El hombre usó capas de rico paño, y aún de grana, pero eran más frecuentes las de picote, palometa, damasco, terciopelo y seda". Lerro onetatik atara dalkegu oitura ori noizkoa izango ete dan eta mantu orreek askotan zelakoak ete diran!

Deabru - labarra

Mañari'n, "Deabru-labarra" izeneko labar aundi bat dago. Arri-mokil ori, Urkuleta'tik Saibi mendira goazala, eskuma-aldeko baso aundiaren ganean dago. Labarra, aundi-aundia ta jauskera txarrekoa da. Ori dala-ta, ez gorantz, ez berantz, ez alborantz bertatik inortxo be ezin igaro daiteke, beko trokara buruz-aurrera jausi bagarik.

Aren ingurutik igaroten gareanetan, gauza bat ikusten dogu bertan: labarraren erdian marra batzuk dagoz, burdia igarokeran txirringak itzi oi dabezan ezaugarriak lakoxe lerrotxoak.

Marra bakanok dirala-ta, gure erritxoan labar orretzaz inun diran ipuinak kontatzen dabez. Ona emen orretariko ipuin bat edo bi.



Eta ori esanda beste bagarik, burditxoari berantz bultza eginda, ume gaisoa beeko troka sakonera jaurti eban. Ume errukarria bertan illik gelditu zan. Gero, urrengo egunetan, sai pilloak, laiñoa-beera jatsita, umetxoaren gorpu samurra jan eta jan egin eban.

Sorgin ankerrak be, baiña txarto egiñaren ordaiña —edo obeto esateko, zigorra—, antxe bertan izan eban.

Biamoneko goizaldean, sorgin gaiztoa, Untzillaitz'era begira, zeruko izarrak zenbatzen asi zan; eta, orretan ziar-duala, Artzate'ko landatik agertu zan adar aundidun ari errime batek, topekada aundi bat emonaz, labarra-beera jaur-ti eban. Eta aren gorpuan be, saiak ase ta bete egin ziran. Sai areik, euren moko zorrotzak sorginaren gorpuan sartu baiño len, adar aundidun ariak urrengo esakun au abestu ei'eban:

Ik ari, nik iri...
ez egin gatzik iñori.

III

Bariku illuntze baten, Txilibristo, Urkule-erdiko etxagun zaarra, Saibi-aldeetik asto aundi bat aurrean ekarrela etorri zan. Eta Deabru-labarra'ren inguruan, Txilibristo'k astoari abots sendoz auxe esan eutsan: "Iñõ! Arre, demoniñuoi!" Eta orduan, labar goienetik "alde txarrekoak" txaloak jo eutsoezan. Biraoa jaurti ebalako, "alde txarreko" areik txalotu ta goratu egin eban|

Txaloak entzun ebazanean, Txilibristo'k ikaraldi errimea artu eban; geiago eziñean ikaratu zan. Eta gure gizona, basoa-beera arinka asita, arnasoska baten etxeratu zan, bere kolkorako iñoala: "Ene Jaungoikoa! Leku onetik urten nok! "Iñõ" ta olako berba motzik geiago ez nik... ezta "demoniñorik" be egundo ez yoat esango... "Alde txarrekoak" poztuteko gauzarik be ez yoat egingo... Olakorik!"

Eta Txilibistro Urkule-erdiko etxagunak, sutondoko aulki zaar baten jesarrita, olako berbak damuz esaten, gau oso-oso igaru ei'eban.

Aurrerantzean, barriz, aren agotik ur gardena lako berba garbiak bakarrik isurten ei'ziran, Deabru-labarra'ko jazokuna egunero gogora ekarten ebal...

I

Bein, Ganoste-menditik, gizon bat burdi-bete iraz etorren, deadarka ta zantzoka, "aida, gorri!" ta "aida, zuri!" esanez.

Alako baten, burdiak bide-ertzean laprazt egin ebalako-edo, idi, burdi ta ira bili-bolaka mendia-beera joanez, beko errekaraiño jausi ziran.

Ori ikusirik, gizona asarre-bitsetan jarri zan; eta goiak eta beak amurruz izentatua, erderazko berba zantari bat esanez, birao aundi bat jaurti eban.

Onetan, betik gorantz, deabru batzuk agertu ziran; eta, deabru bildurgarri areik, idi ta burdi ta gizon, guztiak batera artuta, labarra-gora eroan ebezan. Orduan, ango deadarra, ango zaratea!

Deabruak, txartez gorri-gorri jantzita ei'egozan; eta oiñetan, burdiñazko zapata gogorak ei'eukezan...

II

Beste bein, sorgin dotore batek, umetxo bat burditxo baten ganean labarra-gora ta labarra beera erabilli eban, eguerdiko amabietan eguzkiak bialtzen eban beroa artzen.

Sorgin-sorgintxo,
sorgin-sorgintxo,
txarri-txarrito,
txarri-txarrito.

Ori entzunda, sorgiña asarrez jarri zan; eta begirakada zorrotza jaurtiaz, amurruz beterik umeari auxe esan eutsan:

Ume gaizto, ume gaizto:
oa berantz, baba-lasto.

Pelota jokua Gerniken



JAI-ALAI'en omenez

Gernikeko txokoa, antxiñe antxiñetik, pelota joku zalea agertu da ta frutu ugariak be emon ditu joku orretan. Antxiñeko pelota jokue etzan, seguru, gaur lakoa. Pelotia ondo atzeratu ta ondorien luze ta sendo jotea izaten zan joku orren agiri ta trebetasun dana... jakiñe, orraitioak be, norberak irabazi baiño besteak galdu-tea topaten eben ta.

Ikusliak, barriz, pelotari gizajoak edo "txakoen" bat jazoten ezebalako, edo pelota oso armaratuen bat

galduten ebalako, ikeragarizko oiuaq jaurtiten ebezen. Edozelan be, tantu bat ausartsu ebagi eta txapa inguruetan ipintea astokille bierra zan, baita tantoa irabazi arren be.

Baiña danak ez eben pentsetan bardiñ, ta batez baten azaldu jakun gernikar mutiko bat, baten ausartsua kantxan... "Chapeloma" ziñotsien berari. Mutiko onek berezitasun apartekoa eukan pelota jokuan, gaztasun aproposkoa! Bere trebetasunaren giar eta mamiñe dana ontatxe

egoan: Pelotia atzera botateko kiñua egiñik, deabrukeriko biorkadeakaz aurreko mailletan itxitean.

Lelengoetan "chirenada" kuriosoa lez artuten zan, batez be "Chapeloma"-k bere gatz bizibiziegaz egiten ebalako. Gero kontuan artuten asi zirean eta Eibar-ko ASTELENA frontoiko enpresarioek "Chapeloma" aukeratu eben frontoi aretan jokatuteko. Galdu egin eban "Chapeloma"-k baiño ikusliak gustogustora artu eben pelotari emoten jakon joerea barri auxe. Ordotik sortu zan "borreu" deritxakon garai barria.

Mutikoeak be era barri orretan ziarduen pelotaka, eta orrelan sortu jakun pelotari famatu bat: Marino Solaguren. Euskalerriko kantxa danak ezagutu zitun beronek bere izena euskalerritik atzerrietaraiño igaroaz.

Beste pelotari asko be azaldu jakuzan Gerniken bertan, bai Rubio ("Kirru"), Arrien II ta Onaindia. Auxe, Onaindia, izan dogu danen gallur bere joku piñagaz, eta bere anai Andoniren tenperamendua cuki ba eban, ez eban baztartuko Atano III, Kanpeoia? Baietzieng nago.

Garagarrillaren ogetabederatzian inauguratu eben "GERNIKA JAI-ALAI" frontoe barria, gernikarren arrotasuna; ta beriala zestatoko pelotariak ugaritsu ernetan asi jakuz, eta gaz-

tediak be zaletasun andia artu dautso joku orreri.

Edade danetako mutikoak diardue ekin da ekin joku barri orretan (barria beñipein eurentzako) ta oingoz eidalezko mordotxue osotuten dabe.

Gernikarrak errezerrez jabetuten dire joku orregaz, ta aiñ errez... ze 1964-ko Maiatzean Florida-ko "Miami Jai-Alai"-ko jerentea, Berenson jaunna, euskalerriko frontoiak ikusten ebillera Gernikeko frontoi eta zesta zalien barri itaundu eban. Ogei bat erakutsi eutsezenian zietz arrituta gelditu zan. Gaur bertan 14-ek jarduten dabe profesionalak legez.

Gernikek, bada, zenbat gure pelotari izango ditu aurrerantzian, euskalerriko mendiek perretxikuek dituezen lez. Izango ete dau "Chapeloma" barrien bat?...

Lurgorri-k.

PELOTA TXAPELKETAREN ISTORIA

Mondragones andiak kendue utson "txapela" Cantabria-ri, Vergara'n.

Gero, Mondragones berak jarri eban "txapel" ori eskuz-esku Atano III-garrenagaz:

Lelengo aldiz 1922 urtean, birritan gainera, ta Atanok irabazi: 22-19, baten; ta 22-12, besteetan. Azkenik, urtarrillaren lelengoan Bilbon, ta an be Atanok 22-9 irabazi.

Arreskero:

Urtea: 1940: Atano'k 22; Chiquito'k 8. 1942: 1944: 1946 urtietan be Atano'k irabazi eban "txapela". 1948: Gallastegui I-garrenak 22; Atano III-gnak. 6. 1950: Gallastegui I, 22; Acarregui'k, 15. 1951: Gallastegui I, 22; Acarregui'k, 14. 1952: Ez zan jokatu. 1953: Barberito I txapeldun. 1954: Soroa'k, 22; Barberito I'k. 4. 1955: Arriaran'ek, 22; Soroa'k, 13. 1956: Arriaran'ek, 22; G. Ariño I-gnak, 13. 1957: G. Ariño'k, 16; Arriaran'ek, 11. 1958: Ogueta'k, 22; Arriaran II-gnak. 7. 1959: Ogueta'k, 22; G. Ariño I-gnak, 13. 1960: Azcarate'k, 22; Ogueta'k, 19. 1961: Azcarate'k, 22 Echave X-gnak, 7. 1962: Azcarate'k, 22; G. Ariño'k, 21. 1963: G. Ariño II-gnak, 22; Azcarate'k 2. 1964: Azcarate'k, 22; G. Ariño'k, 14. 1965: Azcarate'k, 22; Atano X-gnak, 17.

